

618426748
i 21822438
F. Vasca
Daccha

Hire bordatxoan

Txipi Ormaetxea omenduz


Gotzon Aurrekoetxea
Jesus Mari Makazaga
Patxi Salaberri Muñoa
(arg.)

BIBLIOTECA CAMPUS DE ÁLAVA KOLDO MITXELENA	
KOLDO MITXELENA ARABAKO CAMPUSEKO BIBLIOTEKA	
Nº B ..18426748.....	Fecha/Data 11/05/16.
Nº I...31822438.....	Depto./Sala F. Vasca
Signatura 809.169 HIR	

eman to zabal zazu



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea



2714281



CIP. Unibertsitateko Biblioteka

Hire bordatxoan : Txipi Ormaetxea omenduz / Gotzon Aurrekoetxea, Jesus Mari Makazaga, Patxi Salaberri Muñoa (arg.). – Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, D.L. 2016. 322 p. ; il. ; 24 cm.

D.L.: BI-70-2016. — ISBN: 978-84-9082-305-7

1. Euskara (Lengua). 2. Literatura vasca. 3. Ormaetxea Lasaga, José Luis. I. Aurrekoetxea, Gotzon, coed. II. Makazaga, Jesus Mari, coed. III. Salaberri Muñoa, Patxi, coed. IV. Ormaetxea Lasaga, José Luis, homenajead.

809.169

891.69.09

Aurkibidea

Hitzaurrea	9
AMAIA ALVAREZ & EDU ZELAIETA Ele, hitz eta solas: Txipi Ormaetxeaz berbetan.	11
BORJA ARIZTIMUÑO Euskararen dialekto zaharrak aztertze saioa: aitagureen <i>mithridates</i> baten deskribapena	21
JULEN ARRIOLABENGOA Aramaixoko santugifne	41
GOTZON AURREKOETXEA Distantzia geografikoaren eta hizkuntza distantziaren arteko korrelazioa	55
ARANTZAZU ELORDIETA & XABIER ARTIAGOITIA Gaztelaniazko polaritate subjuntiboa eta euskarazko konplementatzaileak ...	73
ARIANE ENSUNZA <i>Txipi</i> , txiki baino, handi	91
IÑAKI GAMINDE Ohar batzuk Arrasateko intonazioaz	97
ANA GANDARA <i>Latorrizko danborra vs Manu militari</i> : transtestualitatea hizpide	107
JULIO GARCÍA Definizioaren inguruan	125

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua (UPV/EHU)

ISBN: 978-84-9082-305-7

Lege gordailua: BI-70-2016

JUAN KRUIZ IGERABIDE	
<i>Leoi-kumea</i> : erbesteko haurrentzat euskarara itzulitako liburua (Jacques Prévert-en <i>Le petit lion</i> -en egokitzapena, Orixek egina)	151
AITOR IGLESIAS	
Anlisi dialektometriko bat Arratiako mendebaldeko mugak zehazteko	155
JOSEBA A. LAKARRA	
Gramatikalizazioa, morfemen forma kanonikoak eta berreraiketa morfologi- koaren bide berriak	175
PABLO LEKUE	
Ijito gazte jendearen argazki berritsuak	193
MANU LÓPEZ GASENI	
Juan Kruz Igerabideren «Jonas» saila: herri ipuinak berritzen	201
ALFREDO LÓPEZ DE SOSOAGA	
Txipi euskal jokoetan murgildu zenean	211
JESUS MARI MAKAZAGA	
Txipian handi	227
URTZI REGUERO & RICARDO GÓMEZ	
Joanes Erauskinen aditz taulak: azterketa gramatikografiko eta linguistikoa . .	237
PATXI SALABERRI MUÑOA	
Bertrand Etxauz Euskal Letretan irudikatua (Rapsodia)	249
LOREA UNAMUNO	
Adinaren araberrako bariazio sintaktikoa euskaran	279
BLANCA ÚRGELL	
Atzeranzko eratorpena eta erroaren berreraiketa Larramendiren hiztegian . . .	289
KOLDO ZUAZO	
Debagoieneko euskara	313

Bertrand Etxauz Euskal Letretan irudikatua (Rapsodia)

Patxi Salaberri Muñoa
patxi.salaberri@ehu.eus

UPV/EHU

Laburpena

Materrak 1617an argitaratu zuen idazlan ustez galduaren ale baten aurkikuntza aitzakiatzat, eta batik bat haren mentore izan bide zen Axularrek idatzitakoak abiapuntu, garaiko idazlanetan goersten den Bertrand Etxauz gotzainaren gizarte-proiektzioari buruzko berri eta gogoeta bakanen bat eskaini nahi du artikulu honek.

Hitz giltzak: Euskal literatura, XVII, B. Etxauz, S. Esprit Ordena.

Abstract

A great man in office may securely rob whole provinces, undo thousands, pill and poll, oppress ad libitum, flea, grind, tyrannise, enrich himself by spoils of the commons, be uncontrolable in his actions, and after all, be recompensed with turgent titles, honoured for his good service, and no man dare find fault, or mutter at it.

Keywords: Basque literature, XVII, B. Etxauz, Order of the Holy Spirit.

1. Zeharo galduta ez bazegoen ere, zinez esan daiteke aurkitua izan dela Estebe Materra/Materre frantziskotarrak 1617an, Bordelen, «Pierre de la Court imprimaçalearenean» argitaratu zuen *Doctrina Christiana*.¹ Edo zehatzago

¹ Aurkikuntza aberaste aldera, buruhauste txikiren bat planteatzen etorri zaigu paristarraren deitura. Dirudienez, lehen argitalpenean cuskaratu egin zuen/zitzaion/zioten jatorrizkoa zuen Materre deitura. Haren ondorioz, Materra bezala agertu zen liburuaren egiletza adierazteko orduan eta baita ere liburuari argitaratzeko onespina eman zioten Axular, Gilantena eta Migelenaren gutuntxoetan. Nolanahi ere, «Stephanus Materre» deritzo frantziskotarren probintzialak latinezko baimenean (ikus Materra 1617, 23-24). Azken honen ildoan, egileak berak ere, 1623an kaleratu zuen bigarren edizio zuzendu eta osotuan, «Materre» deitura ezarri zuen liburuaren aitzineko orrialdean, sei urte lehenagoko «Materra» hura ahaztua edo baztertua balu bezala. Hemen bietara izendatuko dugu.

adierazita, lehen argitaraldiak utzitako ale bat izan da aurkitutakoa². Metodologikoki, Sri Lankarekin jadanik zerikusi gutxitxo duen *Serendipität* edo serendipia printzipioaren irradari esker aurkitua, gainera. Eta baita, dena esateko, geografikoki nekez espero zitekeen tokian ere aurkitua: Euskal Letretatik hamaika argi-urtera uste zen Kopenhageko Errege-Liburutegian, hain zuzen.

Hainbat gauza interesgarri ditu liburuak edonola ere, nahiz eta, ezarizarian azalduko diren arrazoiengatik, pasarte soilen batekin baino ez garen hemen geratuko gaurkoan. Ekin ere, Kontrarreformaren lehen une haietan Baionako gotzaina zen «Beltran de Echaus»-i³ autoreak zuzendutako eskaintza-gutunari erreparatuz ekingo diogu honako artikulua honi, azken batean Etxauzen inguruan zentratu nahi baitugu egungo solasa.

Materra, iritsi zaigunagatik, Etxauzek berak ekarri zuen predikari Baionako elizbarrutira, eta, antza denez, ia berarekin batera egin zuen euskal lurraldeetatik alde 1617an: baigorriarra Tours-era gotzain, paristarra La Réole-ko komentura atezain⁴.

Ezin era zehatzean jakin noiz hurbildu zen Materra euskal lurraldeotara, baina uste izatekoa da Pierre Rostegi etorraz zuten arrazoi bertsuengatik eta, ziur asko, garain berean bertaratu zela paristarra ere, Lancrekoa inkisidore gisara, predikazioen bidezko gizarte-garbitzaile —akulturatzaile— modura bigarrena.

Nagusiki premia pastolaralek aginduta —ezin baitira aurreko hamar-kadaren amaieran inguru haietan gertatutako disidentziak eta penitentziak aiantzi—, baina frantziskotarraren predikari-ahalmenez eta abileziak ere ohartuta, *Doctrina Christianaren* sarrerako gomendio-gutunean dioen bezala, Etxauzek berak bideratu zuen Sararantz, euskaraz ikas zezan bertan (ikus I.1 Eranskina)⁵:

ceren nic hitzcuntça hunetan daquidan guztia çuri çor bai-terautçut: çure errana gatic, çuc esporçaturic, bihotz emanic, eta are egoiteco lekhu-ere çuc cerorrec Saraco herria seiñalaturic, daquidana han ikhassi bai-tut (1617, 8).

Sumatzekoa da, ordurako Sarako erretore ospetsu bilakatua zuen Axular adiskidearekin berariaz jarri nahi izan zuela Etxauzek harremanetan Materra euskaldun gaia.

² Gogoan izan bedi bigarren argitalpena *Doctrina* [sic] *Christiana* izenburuarekin kaleratu zuela Materrek 1623an.

³ «Beltran de Echaus» deritzo Materrek baigorriarrari (1617, 3). Etxeberri Ziburukoak, berriaz, «Bertran[d?]]» darabil bere *Elizara erabiltzeko liburuan* (1636: 1665, [1]). Axularrek, azkenik, «Bertrand» garbia (1643, 3). Ikus eranskinetako lehen atala.

⁴ Nonbait lanbide duinagoa aitortu zioten Gilantenak eta Migelenak haien aprobazioetan «Reuleco gardiana» zela ziotenean (in Materra 1617, 18-19).

⁵ Eta baita azkar ere ikasi! Baionako bikario jenerala zen Oiharard-en latin irudiko euskarazko hitzei kasu eginez gero, hamar-hamabi hilabete besterik ez zuen behar izan fraideak euskaraz ikasteko (in Materra 1617, 23).

2. Urte haietan abiatu zen B. Etxauzen irudi-proiekzioa euskarazko letren bitartez, euskal Kontrarreformaren hiru aitzindarien bilkura gisako hartan —inolaz ere kasuala eta desinteresatua ez zena— hasi baitzen mamitzen aurrerantzean «dohatsuen» aldarera igoa ikusiko genuen Etxauz gotzaina. Edo gure imajinario literarioan utzi duen irudia, behinin behin⁶.

⁶ Berandu euskaldundutako prosalari ezagunak baigorriarrari eskaini zituzten goresle-hitzetan jar daiteke abiapuntua.

Xumea izan zen, halere, Materrek Etxauzez egin zuen irudikapena, are xumeago liburuaren eskaintza-gutunari bakarrik erreparatzen bazaio. Honela idatzi zuen paristar frantziskotarrak gutunaren hasiera:

Beltran de Echaus *Baionaco ipizpicu, Erregueren Conseillari eta Lehen-bicico Erremosinari*[ari] (1617, 3; gurea da letra etzana).

Trinkoa, aseptikoa eta kalifikatiborik gabekoa makuluaren itzalpea eskaini zion gotzainaren argazkia.

Bistan da orduko titulu «ofizial» nagusiak besterik ez zuela Materrek erantsi nahi izan eskaintza hartan, zinez handiak eta esanguratsuak baitziren hexagonoko bazter-herri urrun batean bizi zen edonorentzat.

Bere lehorrean, baina, Materrenak argi eta garbi proiektu zituen euskaraz Etxauzen hainbat alderdi azpimarragarri, besteren artean, monarkiarekin zuen lotura estua eta —hari esker, seguruenek— elizaren barnean erdiesten hasia zen maila hierarkiko garaia.

Kontraste nabarmena, egiaz, Etxeberri Ziburukoak handik hogeitau urtera koloreztatuko zuen koadroarekin erkatzen bada:

Iaun noble, Bertran[d?] de Etchaus, Sorbonaco doctor *iaquinsun*, Tursco Archipbizpicu [sic] *digne*, erregueren predicari *famatu*, & Conseiller *çuhurri* (1636: 1665 [2]-aurkia; gureak dira letra etzanak).

Izen edo titulu bakoitzeko adjektibo —balorazio— goresle bat erantsi zuen Ziburukoak, ordurako jadanik artzapezpiku zen Etxauzen irudia tituluetatik harago eraman nahi izan balu bezala.

Izatez, Etxeberri Ziburukoaren kalifikatibo haietan Etxauzen irudia argazki hutsetik haratago bultzatzeko xede moduko bat sumatzen da, akaso berezkoa ez zuen hurbiltasun afektibo batez zipriztintzeko asmoa izango balu bezala.

Zinez pentsa daiteke, adibidez, Toursko artzapezpiku «digne»a dela esatean, haren honorabilitateaz ere mintzatu nahi zitzaizola Etxeberri euskaldun irakurleari, eta kargua ohiko bide ziren salerosketen fruitu susmagarri ere ez

⁶ Ez da lan honen xedea Etxauzen giza-alderdiak zenbait bertute katolikorekin izan zituen gatazka txikiez —euskal literaturak islatu ez dituenak— aritzea. Haren aberastasunaz, joku-zaleztasunaz, alarguntsekiko atxikimenduez, etab., ikus Orpustan 2012.

zela adierazi nahi ziola (susmagarria, batik bat, monarkiarekiko loturak hain ageriko geratzen zirenean gorespenetan).

Berdintsu esan liteke jatorrizko nobleziak zein protagonistaren tolesturarik gabeko aldarteaz beraz mintzo zen «noblea» kalifikatibo enfatizatzailearen presentziak; hots, «jaun» eta «noble», biak bat eginik.

Interesgarriago deritzogu, dena den, gorespenen lehen lerroetan bertan aipatua utzi zuen teologi titulazioari, gure gotzaina Sorbonako doktorea izan zela zioenari. «Sorbonaco doctor iaquinsun» zeritzon bera ere teologo doktore zen ziburutarrek.

Arlo intelektualeko «abantail» edo gorespen soil lirudikeen laudorio hura adierazgarria da baigorriarraren irudi-proiektzioa osatzeko orduan eta baita interpretatzekoan ere. Ezin da ahaztu, izatez, datu haren lerroetaraztea heretsiki lotua iristen zela Sorbonako Teologia fakultatearen garrantziarekin eta fakultateak Kontrarreforman bete zuen jarduera entzutetsuarekin. Etxauzek bertan lortu zuen prestakuntza akademikoarekin baino lotuago, jakina. Alegia, prestigioa besterik ez zion ekartzen horrek gotzainaren irudi publikoari.

Baina ezaguna den bezala, badu ezpatak bigarren ahorik ere. Kasu honetan, Sorbonaren betidaniko ospea, indarra eta protagonismoa guztiz areagoturik (edo kuestionaturik, nondik begiratzen den) geratu ziren protestanteen aurkako erasotze «intelektualetan», batik bat, liburu debekatuen zerrendak—geroago *Index Librorum Prohibitorum* deituko zirenen aurretikoak— presatzeari ekitean eta lan inkisitoriala burutzen edo, nahiago bada, errazten hasi zenean⁷.

Prestakuntza akademiko luze-sakonaren aldarriak, beraz, zuritu besterik ezin egin zezakeen Baionako gotzaina Xareta aldean epaiketa eta errepresiolan praktikoetan murgildurik ikusi zuen gizartearen aurrean.

Erantsi dezagun, azkenik, lehorreko hirutasun kontrarreformista aberastera etorri zaigun ziburutar iturri berberetatik jakin zuela euskaldun irakurleak «erregueren predicari famatu» ere izan zela Etxauz.

Datu interesgarria berau ere, baiki, baigorriarraren irudi publikoa era osoago eraikitzeke, hitzaren jabe trebea ere bazela iradokitzen baitzen albiste haren bitartez. Eta trebetasuna ez, beste euskal elizgizonek bezala edo, jaiotzez eta transmisioz zeukan hizkuntza autoktonoan bakarrik⁸.

Funtsezko mezua zen monarkiak, gorteak eta kultura hegemonikoak zerabilten hizkuntzan ere bazuela Etxauzek diskurtsorako antze bikaina. Berdin, beraz, frantsesean⁹ zein latinean.

⁷ Ezaguna da, esaterako, 1544-1558 bitartean lan debekatuen sei *aurkibide* atondu zituela Sorbonak, 588 liburu barneratuz (Rambaldi 2008, 13).

⁸ Etxauzen hizkuntz jatorriaz mintzo dira Etxeberri ziburutarren ondoko bertsoak: «Ceren iaiatez baitçare/ Çu ere Escalduna» (1636). Ezaguna da, halaber, anaiarekin izaten zuen gutun-trukaketa euskaraz ohi zuela.

⁹ Ba omen zen Etxauzen frantses mailaz iseka egiten zuenik (ikus Orpustan 2012).

3. Etxauzen «literatur» irudikatze horiezaz gainera, bada pertsonaiaren larritasuna txairotasun neurtuarekin uztartu nahi izan zuen hirugarren idazle bat ere: Urdazubiko semea.

Esan gabe doa badela zer argitu haren orrialdeetan, zeren eta egia baita, luze bezain trinkoa izanik haren liburua, ez gutxitan, gure autoreak idatzita-koek ez dutela egokiro ulertuak izateko bidea erraztu. Gaurko gaiari dago-kiola, Axularren *Gero* liburuaren buru-buruan, hain zuzen, aurkitu izan dira lehendabiziko hodei arre-ñabarrenak.

Hel diezaiegun, bada, ate-aitzinean dugun gotzain baigorriarraz diharduten haren lerro nagusiei eta, ahal dela, interesgarrienei.

Esan bezala, «Gomendiozco carta»ren burukoak azaleratutakoa izan da interpretaziotan saiatzeko tentagarriena (testu osoa I.3 Eranskinen).

Axularrek berak adierazten duenez, hil ondoren erredaktatu zuen B. Etxauzi eskainitako gutuna¹⁰.

Gomendio-gutunek bilatu ohi duten babes-xedearekin batera, urdazubiar-rrak «euskaldunen buruçagui beçala»¹¹ ere proiektatu nahi izan zuen adiskide ahaltsuaren irudia, eta hartarako, noski, ezinbesteko iritzi zion haren goraz-rra ere egiteari, haren bizitza eta mirakuluak—eskas samarrak, agerikoa de-nez¹²—era ezin dotoreagoan eskainiz.

Ziur asko, panegiriko horren atalean datza punturik ilunena eta—horrexegatik—eztabaidatuena eta baita, ondorioz, azalpen-premia izan duena ere, ordukoak ez ziren irakurleentzat ulergaitz mantendu da-eta luzar-ron lerro haietako hitzen bat edo beste.

Begiraturen bat eman dionak dakien legez, titulu (edo, nahiago bada, «kargu») bilakaturik zerrendatu zituen Axularrek baigorriarraren «merezimendu» nagusiak gutunaren hasieran¹³:

ENE IAUN/ BERTRAND DE/ ECHAUS, TURSCO/ Arzipizpicu, Franciaco lehen-/bicico erremusinari: Ordenaco/ aitonon seme, eta erregueren/ Conseillari famatuari (1643, 3).

¹⁰ 1641eko maiatzaren 21ean hil zen B. Etxauz eta 1642ko amaiera aldekoa dirudi Axularren sinadurak.

¹¹ «Cer ere esquiribatuco baita euscaraz, hura guztia, euskaldunen buruçagui beçala, çuri da-gotçu[...], çuri çor çaitçu[...], eta arraçoifñez orai ere, çuri presentatu behar çaitçu[...].» (1643, 9-10).

¹² Horretan datza, ziurrenik, Axularrek Etxauzen «anhitz donu, dohain, eta abantail suerte»ak—«adimendu eder bat, memoria handi bat, eta vorondate» ezohikoa, alegia—azpimarratzearena (1643, 9), eta ez, ordea, «merezimendu handiac» zehaztearena, ez eta «eliçari erregueri eta comun guztuari, anhitz occasinotan eguin» omen zizkion «cerbitçuaç eta endreçuaç» banan-banan aipatzearena ere (*berdin*). Are harrigarriago eta adierazgarriago, Etxauzen aitaren balentria anti-protestanteari orrialde oso bat eskaintzen dionean...

¹³ Ohikoa zen bezala, titulu eta kargu nagusi horien artean ez da agertzen maila apalagokoa zen Baionako gotzaina izan zenekoa (1599-1617). Jakina, Toursko artzapezpiku gertatu aurretik zuzendu zion Materrek titulu eklesiastikoa lehen edizioko eskaintzan: «Baionaco Ipizpicu» (Materre 1617, 3).

Testuaren izaerak ez bide du zalantzarik uzten: exagerazioekin ala gabe, nonbait Etxauzen irudikatze politiko-erlijioso neutroena burutu nahi izan zen lehen zazpi lerroska haietan.

Lehen kezka/galderak, halere, titulu haien hautaketak berak leharzke: zergatik lau meritu horiek (bakarrik) eta zergatik ez beste batzuk (gehiago)? ofizialak baino ez? objektiboenak soilik? maila gorenekoak bakarrik?

Zeinahi ere den erantzuna, eta bestelako argibiderik izango ez bagenu ere, bada Axularren hitzetatik aratz ondoriozta litekeen punturik.

Aurrenekoa eta errazena beharbada, Etxauzek Eliza katolikoaren barneko hierarkian izan zuen toki gorena Tourseko artzapezpikutzan (1617-1641) agortu zela adierazten duena. Axularrek berak dioenez, Frantziako eta Nafarroako errege zenaren laguntza izan zuen hasieran behintzat, baina moztu egin zitzaion/zioten kardinalgora iristeko bidea: «[...] badirudi [...] Echausco etchearen arropa gorriaz vestitceco bidetan içan çarela. Ceren ezta eztaquienic, ecen erreguec hartaracotçat hautatu eta icendatu cinituela» (1643, 8). Alabaina, geroago azaldu bezala, «colpea huts eguin bada ere, ez-tela, çure faltaz edo çu hartaco ez gai içanez, huts eguin» (*berdin*, 8-9).

Behin baino gehiagotan jakinarazi denez, politika-munduaren barneko indar-korrelazioen arteko ahuleziaren batean zetzan porrotaren benetako arrazoia¹⁴, eta ez abilezia intelektualen edota bertute espiritualen eskasian¹⁵. Gainerako karguetara iristeko bezalaxe, erantsi beharko litzateke jarrera.

Ondorioztatzen den bigarren puntua, baigorriarra politikoki markatuago uzten zuena dugu. Izan ere, Henrike IV.aren eta, ondoren, Luis XIII.aren konfidantzako gizon bezala agertzean suertatu zen nabarmen hura, eta, areago, haien kontseilari ofizial gisara azaltzean.

Oraintxe helduko diegu arreta gehiago eskatzen duten «Franciaco lehen-bicico erremusinari» eta «Ordenaco aitonen seme» puntuei, baina esan dezagun aurrenik ez dela argi geratzen zer zela eta erabaki zuen Axularrek ospearen kalifikatibo —aldez, bederen— hutsala («famatu» hitza baliatuz) perpausaren amaieran eranstea.

Ikusi dugu distira gehiago erabili zuela Etxeberri Ziburukoak xede berdina zuen goreste-testu hartan, eta horrexegatik galde liteke zergatik geratu zen hain soilduta eta hutsaldurik Axularrenean lerroalde hura. Baina, exege-siak eta hermeneutikak gorabehera, badirudi testutik at bilatu beharko liratekeela hala edo hola asebate ditzaketan erantzunak.

Momentuz, bada, aurrera egingo dugu, balizko hipotesien lurrinak al-boan utzita.

¹⁴ Tallemant des Réaux, garaiko «istorio»en kronikariak jasotzen duenaren arabera, Richelieu izan zen porrotaren eragile nagusia: «ce bonhomme pensa estre cardinal; mais le cardinal de Richelieu l'empescha» (ikus Orpustan 2012, 8).

¹⁵ Nahiz eta, 6. oharrean apuntatu legez, ez dirudien jendaurrean aurkezteko makalegiak ziren Etxauzen bestelako «ahuleziak» ere.

4. Esanak esan, eta egungo irakurleontzat bitxi samarra den arren, ez genuke lar errepikatu nahiko Axularrek aipatutako merituen artean «Frantziako Lehenbiziko Erremusinari» delakoaz aspaldi idatzi genuena¹⁶.

Labur-zurrean, zuzena zen Villasantek tituluaren azken hitz pare horri aurkitu zion adiera: «Lehenbiziko Erremusinaria» edo *Kaperau Nagusia* (ikus haren 1972 eta 1979). Hau da, erregearen konfiantzako arduradun eklesiastikoa monarkiaren politika erlijiosoari zegozkion gaietan; praktika politikoan, eliz hierarkian aurretik zeuden kardinal eta artzapezpikuen gainekoa, hain zuzen.

Beraz, Frantziako *Kaperau Nagusia* titulu eta hari zegokion ardura larria¹⁷ bizkarreratu zitzaizkion Bertrand Etxauzi Henrike IV.ak 1606an hartarako izendatu zuenean¹⁸.

Ohar bedi erantzukizun politiko-erlijioso hura bera izaten segitzen zuela Etxauzek hiru urte beranduago erregeak komisionaturiko Pierres Rostegi Lancrekoa Lapurdira hurbildu zenean ere.

Oker ibiltzeko arrisku gutxirekin baieztatu daiteke monarkiaren zigilua zeraman errepresio-estrategia bortitzaren arduradun nagusia izatetik ez oso urruti ibili zela baigorriar zintzo hura Sara inguruko sorgin-ehiza ezaguna diseinatu zenean.

Baina ez da, guk dakigula, jokamolde piadoso haren testigantza zuzenik edo izkribu argi-emailerik. Hobe, akaso, horrela Etxauzen literatur beatifikaziorako.

Zeinahi ere zen Etxauzen egiazko profila, *Geroren* irakurlearen hurrengo galdera erraz asko izan liteke ea zer dela eta erabili zituen Axularrek titulu horiek —horiek bakarrik— Etxauzen irudikatzea egiteko orduan, eta, agian, nondik etorri zitzaion urdazubiarrari meritu horiek —eta horiek bakarrik— aipatzeko ideia.

Urdazubiarraren zertxobait bederen ezagututa, eman lezake ez zuela horrelakoetan irudimen eta asmazio hutsetan ibiltzeko ohitura gehiegirik, eta nahiago izan zezakeela idatzizko erreferentzian oinarritzea berea burutzerakoan.

Etxauzi bizkarreratu gorespen-zerrenda horretatik orain arte —berariaz airean utzita— mahairatu ez dugun noblezi tituluak ekar litzake, beharbada, azken hodei ilun horiek ezabatzeko albiste egokienak.

5. Izatez, Bertrand Etxauzen izenarekin tinko uztarturik agertzen den «Ordenako aitonen seme» tituluaren inguruan sortu izan dira katramilarik handienak.

¹⁶ Ikus Salaberri 1998.

¹⁷ Arrazoi du Villasantek honako hau dioenean, hots, «titulu hutsa baino gehiago zena» (1972, 55), izatez, erantzukizun politiko-erlijioso garaia izatea egokitu ohi zitzaion ohore hori zeukanari.

¹⁸ Aldaketa xume batekin idatzia zuen Materrek titulu hori bera 1617ko argitalpeneko eskaintzan: «lehenbicico Erremusinaria» (1617, 3).



1.—Bertrand Etxauz, Tours-eko Artzapezpikua eta Erregearen Erremusinarria

Haren funtsezko esanahiari heltzen hasteko, gogora bedi lehendabizi Axularrek berak paratu zuela tituluaren bigarren atalaren sinonimoa «Irakurtzaileari» luzatutako hitzaurrean, honako hau idatzi zuenean: «Batac [erraiten du] *aitonen semea*, bertzeak *zalduna*» (1643, 17; gurea da letra etzana)¹⁹.

Iluntasunik ez, beraz, esangura literalaren lehen mailan, argi baitago zaldungoaren munduko izendapenen bati buruz ziharduela tituluak.

Zalantzak, ordea, nobleziaren hierarkia orokorrean kokatua izateko garrantzitsuagoa zen «Ordena» delako hitzarekin sortzen zitzaizkion irakurleari. Zalantzak eta okerrak, alegia.

Axularren obraz gehien eta sakonen ikertu zuen Villasantek, esate baterako, ez zuen hitz haren azpian gorderik zegoenera apuntatzen jakin, honela

¹⁹ Ordurako Baltasar Etxabe zumaiaarak ere idatzia zuen harako «[...] más principales hijos dalgo a quienes llamaban Aitonem semeak que quiere decir hijos de buenos padres» (1607, 70).

eman baitzuen *Axular-en Hiztegia* titulu osoaren ordaina: «*Ordenako* aitonem seme: *Gentilhombre del Orden*» (1979, 460; gurea da letrakera etzana)²⁰.

Ezer esaten eta adierazten ez zuen adiera²¹.

Beste tokiren batean azaldua dugu jadanik «Ordena» terminoa beste era batera ulertu behar dela testuinguru horretan, izan ere, esanahi autonomasikoa islatzen baitu, garai hartako zaldun-ordenarik garrantzitsuena adieraztekoa. Esan nahi baita orduko jendearentzat balio autonomasikoa har zezakeen ordena nagusia eta ezaguna adieraztekoa.

Urte haietan, jakina, «*Ordre du Saint Esprit*» izenekoak baino ez zuen betetzen proiektio «unibertsala»ren baldintza, Frantziako lehen-lehena suertatzeaz gain, berezko zeuzkan izaeratik eta ospeagatik beragatik, euskaldun xumeen belarrietaraino iritsi zitekeen bakarra baitzen.

Jakina da ordura arteko Ordenak izakera klasikokoak-edo zirela eta «*Ordre de Saint-Michel*» delakoa izan zela Frantzian XVI. mendean garrantzi eta sona gehien erdietsi zituena. Luis XI.ak 1469an Amboisen sortua, interes politikoa medio, Axularrek aipatzen duenarekin lotura ezin estuagoak izatera iritsiko zen, besteak beste, aurrerantzean erregeak «*Grand Maître*» suertatuko zirelako bai S. Michel eta bai S. Esprit Ordenetan²².

Mende bat beranduago eratu da Espiritu Santuaren Ordena. Frantziako Henrike III.aren ekimenez sortu zen 1578ko abenduan, hain zuzen ere erlijio-gerrak gori-gori zeudenean, eta erregeak noblezia guztia bere ingurura bildua izateko premia atzeman zuenean²³.

Erregeak estatuko indar faktiko guztiak kontrolatu ahal izateko erakunde bilakatu zen orduan Ordena; eta baita, aldi berean, monarkiaren mendeko aginte-gune nagusi ere.

Baina anekdoten kategorietan erortzeko arriskua onartuta ere, hurrera gaitezen zertxobait gehiago erakunde haren barnealdea ezagutzera, Etxauzenak argitzeko ere balioko baitigu.

²⁰ Berdin-berdin itzulita emana zuen 1976an argitaratutako *Gero* elebidunean.

²¹ Aitortu behar dut, barkatzen bazait oroitzapen pertsonala, harridurarekin jaso zuela Villasantek, buruz buru geundela, lehen aldiz adierazi nionean interpretazio-akats hori; baina onargarri iritzi zion —orduan, oraindik, gehiegi frogatu gabeko— hipotesi alternatiboari. Handik aurrerakoak, tamalez, ez ziren izan bere bizitzako unerik motibatuenak Axularrenez eta Etxauzenez jarduteko.

²² Baina ez zen lotura bakarra, izatez, «nul n'est receu audit ordre du Saint Esprit qu'il n'ait esté fait chevalier de l'ordre Sainct Michel par le Roy» (Cayet 1838, 653). Hau da, Ordena nagusiko zaldun bilakatu ahal izateko, ezinbestekoa zen lehendabizi bigarrenekoa izendatua izatea (ikus 3. irudian bertan txertaturik dagoen oin-oharra).

²³ Ezin ahantz daiteke S. Michel izeneko ordenak nekez bete zezakeela erregeak nahi zuen eginkizuna, haren ustez, barnetik usteldua baitzegoen: «grandement descheu et avilly, pour avoir esté conféré a plusieurs personnes de peu, et indignes de tel honneur» (De Valles 1631, 5-iruzuzua). Horregatik, S. Esprit Ordena sortzeko asmoa azaldu zuenean, hurbileko kontseilariek ordena zaharra berregiteko aholkatu zioten Henrike III.ari; honek, ordea, besterik erabaki zuen, betiere «a l'exemple de l'Empereur Maximilien, qui avoit esté grandement loué d'avoir relevé l'ordre de la Thoison, tombé en semblable decadence et prophanation» (*Idem*).

6. Aipatzekoa da, lehenik eta behin, erregeak biltze- eta kontrol-premia haren artikulazioari Espiritu Santuaren izena emateko erabili zuen arrazoia, izan ere, izendapen harekin zeruetako Hirutasunak monarkari gordeak bide zizkion xede eta eginkizun larriei erantzuten ziela erakutsi nahi izan baitzuen errege piadoso hark.

Hona, laburbiduta, esku dibinoa islatzen omen zuen argudioaren haria: Jainkoaren borondatearen lehen «seinalea» 1550ean gertatu zen, Mendekoste-egunean jaio baitzen mundu honetara Henrike III.a. Gero, gaztaroan, hogeita hiru urterekin protestanteen aurkako gerran Arroxelako setioa gidatzen ari zela²⁴, Mendekoste-egunean bertan jaso zuen Poloniako errege izandakua izan zela zioen albiste.

Baina bi seinale horiek Jainkoaren nahia erakusteko aski argiak ez baziren, hara non, bat-batean, 1574. urtean, goiko zeruko indarrek Mendekoste eguna aukeratu zuten berriro ere orduan Frantziako erregea zen Karlos IX.a, Henrikeren anaia zena, beste mundura eramateko. Numerologian eta sinbolikoki bederen, Hirutasun Santuaren parean jartzen zuen hirugarren seinale argia eta larria, beraz.

Azken horrek, gainera, Frantziako errege bilakatzeko «grazia eta benedikazioa» ekarri zizkion artean Poloniako errege eta Frantziako printze soila zen gazte hari.

Hortaz,

comme ce Prince estoit grandement pieux et devotieux —Ordenaren kronika gisakoa eta kapitulu (bilera), zaldun eta besteren berri ematen duen De Valles-enak dira hitzak—, il avoit perpetuellement devant les yeux la souvenance de tant de graces et benedictions qu'il avoit receuz du Ciel, que s'estoient manifestees le jour de la Pentecoste, Jour auquel l'Egles Catholique Appostolicque et Romaine solemnise la feste du tres saint Esprit, apres avoir long temps ruminé en son entendement ses merveilles, il resolut de perpetuer par toute la Chrestienté et particulièrement en son Roiaume la memoire de ses choses. Et le dit jour de la Pentecoste pour cet effect, il delibera de faire et establir un ordre de Chevalier du benoist st Esprit, jugeant ceste action la plus illustre, noble, digne, louable et remarquable qu'il pouvoit choisir et faire pour un si digne especieux subiet (De Valles 1631, 4-5).

Erljioari emandako balio fundazional hura ikusirik, bada, ez da harritzekoa Ordenako partaideen eginkizunak (edo, nahiago bada, partaide gisa begiratu beharreko ardatzak) ere fede katolikoari eta «Maisu» nagusiari (erregeari, alegia) erabateko fideltasuna gordetzera mugaturik azaltzea. Bigarrena bezain finkoa lehena, jakina.

²⁴ Bi urte lehenago kaleratu zituen protestanteen gotorleku hartan Leizarragak bere idazlan guztiak.

Ordenak lehendabiziko ardatzarekin zuen leialtasuna, esaterako, hurrengo erregeari ezarriko zitzaion betebeharrarekin azaleratuko zen nabarmenkiro, oso baita esanguratsua, izatez, nola jaso zen idazkietan Henrike IV.aren jatorri —eufemistikoki— «ez katolikoa».

Honela adierazten da, hura errege bilakatutakoan, parte hartu zuen Ordena hartako lehen batzarreko dokumentazioan:

Le dixiesme Chappistre de l'ordre des Chevaliers du st. Esprit, tenu soub le Regne du Roy Henry quatreiesme dit le grand, Roy de France et de Navarre, lequel n'estoit encorres Catholique (De Valles 1631, 156-aurkia; gurea da letra etzana).

Eta zehaztu egin zen beheraxeago horrek zekarren ondorio praktikoa, hots, Ordenako batzarburu izateko debekua:

[...] Henry quatr[eies]me du nom Roy de France et de Navarre, lequel comme souverain et grand Maistre des ordres de st. Michel et du s. Esprit, fust tenir son premier chappistre de ses dites ordres dans leglise paroichiale de Darnetal, pres la Ville de Rouen, en Normandy, qu'il tenoit lors aferegee, lequel chappistre fut tenu par Monsieur Armand Gontault Beron, Baron du dit lieu, chevalier de ses ordres et Mareschal de France, ne pouvant sa Maiesté tenir le dis afapp.re par ce quil n'estoit encorres catholique [...] (De Valles 1631, 156-iferentzia; gurea da letra etzana).

Behin erregea katoliko bilakatuta²⁵ eta indar faktiko guztien atxikimendua jasorik, protestantismoari aurre egiteko zein erresumaren kohesioa erdiesteko baliagarria zen erakunde politiko-erlijioso baten funtzionamendua hartu zuen Ordenak.

7. Geroago ere doikuntza-egokitzapenik faltako ez zitzaion arren, araudiaren arabera ehun kidez osatua zen Ordena, haietatik 87 aitonen seme edo zaldun zirelarik, hau da, hiru belaunaldietan gutxienez noble izandakoak²⁶, 35 urtetik gorakoak (printzeak 25etik gorako izan zitezkeen) eta ordurako Saint-Michelen Ordena-ko kide bazirenak.


Oro har, honako lau kide hauek ziren Ordena barneko kudeaketa-hariak mugiarazten zituztenak: zeremonia-maisu nagusia, erresumako diruzaina, kantzalaria eta idazkaria.

²⁵ Hurrengo kapitulurako (1594ko otsailaren 28an burutu zen hartarako, hain zuzen) esana bide zuen harako «Parisek ongi merezi du Meza bat» hura: «Unziesme Chapp[ist]re tenu en la ville de Chartres en Beaulce. Henry 4e du nom tres chertien Roy de France et de Navarre apres avoir embrassé la religion catholique appotole et Romaine» (De Valles 1631, 164-aurkia; gurea da letra etzana).

²⁶ 1595ean argi azaltzen ziren arauak: «Nul n'est receu en cest Ordre qu'il n'ait protesté de vivre et mourir en la religion catholique, apostolique-romaine, qu'il ne soit gentil-homme de nom et d'armes, de trois races paternelles pour le moins, sans estre accusé d'aucun cas reprochable ny parvenu en justice, et qu'il n'aye vingt ans accomplis» (Cayet 1838, 653).

Horiez guztiez gainera, nabarmendu beharrekoa da elizgizonen presentzia ere, teoriarik bederen fedeari zegozkion arazoetan kontseilu eman eta erabakiak argitzeko aukeratuak baitziren.

Bederatzi guztira, hierarkikoki frantses kardinalak eta artzapezpiku eta gotzain ospetsuenak baino ez ohi ziren hautagai²⁷. Elizgizon haietako bat, esan gabe doa, «le grand aumônier de France»²⁸ zen, Axularrek «Frantziako Lehenbiziko Erremusinari» zeritzona.



2.—Bertrand Etxauz artzapezpikuaren armarrria (1623)

²⁷ Ordenako kideak izendatzeko batzarretan honela zihoazen jantzirik: «Pour les cardinaux et prelates qui son aussi commandeurs dudict Ordre, assistans aux festee et ceremonies, ils sont vestus, sçavoir, les cardinaux, de leurs grandes chapes rouges, et les evesques et prelates, de soutanes de couleur violette, et un mantelet de mesme couleur, avec leur roquet et camail, portans tous la croix d'or dudict Ordre pendante à leur col, avec un ruban de taffetas de couleur bleue celeste, et une autre croix dudict Ordre en broderie cousuë au mantelet» (Cayet 1838, 653-654).

²⁸ Betiere latineko *elemosinariusetik* eratorrita, «Premier Aumosnier» eta «Premier Aumosnier» bezala ere azaltzen da inoizka titulua.

Jakina, kideak izendatzeko erabakia erregearen borondatean bazetzan ere, badirudi Etxauzek aski ongi betetzen zituela «Ordenako Aitonon Seme» izateko oinarri-oinarrizko baldintzak Henrike IV.ak Ordena moldatu zuenerako, hots, leinu noblekoa izatea —zeina Aldudeko bizkondearen ondorengotzak ematen zion—, hiru belaunalditan zalduna eta adinez 35 urtetik gorakoa (c. 1556an jaioa zen baigorriarra, antza denez²⁹).

Edonola ere, Frantziako Lehenbiziko Erremusinari bilakatzearena zeharo izan ohi zen monarkaren apetei lotua. Alabaina, honako idazlan honen muga finkoek aginduta, beste baterako utziko da Etxauzen «karrera» politikoterlijiosoaren urratsen segimendua³⁰.

8. Zernahi ere den, ez zen Henrike IV.a izan Etxauz S. Esprit Ordenan kide izendatu zuen erregea. Izan ere, 1610en hil zuen Ravailac-ek Borboi-Albretar etxeko monarka hura, eta Etxauz, zuzen bideratua bazihoan ere, beranduago baizik ez zen elite hartako partaide izatera iritsi.

Alegia, Frantziako hurrengo erregeak izendatu zuen gotzain baigorriarra Ordenakide. 1619ko biltzarrean, hain zuzen ere.

Ohi bezala, urteko azken egunean burutu zuen Luis XIII.ak Ordenako XVI. Kapituluua. Parisko Agustindarren monasterioko elizan bildurik, monarka berriaren irudi-arazoa edo —nondik begiratzen zaion— haren gizarte-proiekzioa izan zen gai garrantzitsuenetakoa:

fut mis en deliberation si on laisseront le Collier du St. Esprit en l'estat qu'il estoit, ou bien si on y mettront une L, lettre capitale du nom de sa Ma[jes]te au lieu de «H», surquoy il y eut diverses oppinions (De Vallés 1623, 261-aurkia³¹).

Arazoa, bada, ximplea zen: ea aurreko erregeen izenaren lehendabiziko hizkia (bai III.a eta bai IV.a biak ziren Henrike) mantendu behar ote zen Ordenako armarrian ala, haren ordeaz, errege berriaren izenaren L delakoa jarri.

Gauzak bere hartan uztea izan zen erabakia:

En fin, apres avoir consideré qu'en y mettant une «L» cela obligeroit a chacune mutation de Prince de changer le dict collier [...], fut resolu qu'en memoire perpetuelle du Roy Henry troisesme, Roy de France et de Pollongne Instituteur dudis ordre du st. Esprit, le dict Collier demeureroit a jamais fait et composé de «H», couronnés ainsy que le seu Roy Henry quatreiesme son successeur avoit ordonné, sans pouvoir estre changé pour quelque cause que ce soit (De Vallés 1623, 261-aurkia&ifrentzua).

²⁹ Bestelako datarik ere proposatu izan da mundu katolikoan. The Hierarchy of the Catholic Church delako weborriak, esaterako, 1560. urtea ematen du Etxauzen jaioturte gisara (<http://www.catholic-hierarchy.org/bishop/bdesch.html>)

³⁰ Susmoa da Etxauzekin eta monarkiarekin estuki lotutako adiskidetasun eta nepotismo-harremnik ez dela ments Axularren karrera eklesiastikoan ere (Salaberrri 2005).

³¹ Honetarako eta hurrengo aipamenetarako, bertsio zainduagoa eta koloretan: De Valles 1631, 257 eta hk.

Guztiarekin ere, zaldunak izendatzeko arazoak ere ez ziren errazak suertatu, 59 kide hautatzeko ehun hautagai baino gehiago baitzituzten zerrendan:

Sur la difficulté qui setrouvoit de ce qu'il ne manquoit a remplir que cinque neuf places de chevaliers et qu'il y avoit plus de cent personnes nommées («Extraicts et copies des Registres de l'Ordre du saint Esprit» izeneko kaiera, 6-iferentzua, in *Extraicts et mémoires* 27-iferentzua).



3.—Frantziako eta Nafarroako erregea zaldunak izendatzen (1633)

Zeremonian, ohi bezala, elizgizonak izan ziren aurrenik izendatutakoak³². Honako hauek, hurrenez hurren:

³² «La Ceremonie commença ledit jour dernier de ladite année 1619, après vespres, par la reception des Cardinal et prelatz cy après nommez que sa Maj[esté] receut pour commandeurs associez es ordres» (De Vallés 1623, 261-iferentzua).

- Henry de Gondy, Rhais-ko Kardinala, Parisko gotzaina, errege- eta Estatu-kontseilaria eta «M[ai]str[e] de son Oratoire» (De Vallés 1623, 269-iferentzua).
- Berthrand de Chaux (gure B. Etxauz, alegia), Toursko artzapezpikua, Erregearen³³ eta Estatuaren kontseilaria, eta «Premier aumosnier de sa Majesté» (*berdin*, 270-iferentzua).
- Christople de Lestang, Carcasonako gotzaina, errege- eta estatu-kontseilaria eta «Maistre de sa chapelle» (*berdin*, 271-iferentzua).
- Gabriel de Laubespine, Orleans-ko gotzaina eta errege- eta estatu-kontseilaria (*berdin*, 272-iferentzua).
- Artus D'Espinay de Saint Luc, Marseilako gotzaina, estatu-kontseilaria eta «Abbé de Reddon» (*berdin*, 273-iferentzua).

Zazpiak izan ziren «prelat associé a l'Ordre» gisa hautatuak.

Jarraian, «odol urdinekoen» izendapena etorri zen. Erregearen anaia lehendabizi, hots, «Gaston filz de France, frere unique du Roy, Duc d'Anjou» (*berdin*, 274-iferentzua). Eta «Louis de Bourbon, Prince du sang, Comte de Soissons, Pair et grand Maistre de France, gouverneur et Lieutenant general pour le Roy en D'Auphiné» (*berdin*, 275-iferentzua) gero.

Gainerako zaldunen izendapenari egokitu zitzaion ondoren³⁴, tartean Baionako gobernaria zen Antonio Gramont-ena zegoelarik³⁵.

Agerikoa zen, edonola ere, frantziar lurraldeak eta indarrak kontrolpean izateko eraikia zen Ordena hartan ez zela B. Etxauz azken zerbitzaria ez kiderik umilena, lehen mailako agintarrietako bat baizik. Eta hori ez zen, noski, azken orduko zoriari esker gertatutako zerbait. Eta ezta ere, oro har, izendatuen ahalmen intelektual eta bertute espiritual soilei esker erdietsia.

9. Artikuluan barrena hizpide izan dugun titulu-zerrendaren ekimenari gagozkiola, eta lehen zauskadan harrigarria balirudike are, zeremoniaren kroniketan jasotako albisteek argi uzten dute ez ziola Axularrek —ia— ezer berri edo ezohikorik erantsi bere adiskide baigorriar zenduari eskainitako «Gomendiozco carta» delakoaren idazpuruan.

Alegia, oraingo hizkera oiesean esango genukeenez, Axularrek erabiltzen ez zituen moldeetara itzuliaz, Tourseraztetik aurrera eta 1619ko izendapenarekin batera, arras finkoa eta ofiziala utzi zuen Etxauzek bisita-txarteleko testua. Haren armarriko³⁶ hitzak lekuko:

³³ «Erregeren» idatzi zuen Axularrek, erregetzat hartzen zuela adieraziz.

³⁴ Luze joko luke zaldun berri guztien izen-deiturak eta armarriak hona ekartzek. Zaldun-zerrenda eta armarrien irudietarako, ikus bibliografia.

³⁵ Bertrand Etxauzi beti —1593an Henrike IV.ak Baionako gotzaina izateko izendatu zuenetik, behinik behin— «gerra bizia egin zion» konde hura bera (Villasante 1972, 54).

³⁶ Morinek deskribatu bezala (1623), Etxauzen armarria honelakoa zen funtsean: «porte d'azur à la face d'or de trois pieces» (ikus 2. irudia).

Bertrand de Chaux Archevesque de Tours, Conseiller du Roy en ses Conseils d'Etat & privé, & son premier Aumosnier, Prelat associe à l'Ordre (Morin 1623, 17).



4.—Bertrand Etxauz artzapezpikuaren armariaren ondoko inskripzio-orka (1623)

Ez da zalantzarik, bada: urdazubiarrak ez zuen irudimena gehiegi estutu behar izan berea idazteko, guztiz bat baitatoz frantsesezko perpaus horretan agertzen diren titulu ofizialak eta Axularrek —beste ondozkapen batekin, egia da: lehenengo titulu erlijiosoak, politikoak gero— bere «Gomendiozco Carta»-ren hasieran jarri zituenak.

Honatz, goragokoa errepikaturik, *Gerora* itzuli zuena:

Bertrand de Echaux, Tursco Arzipizpicu, Franciaco lehenbico erremusnari: Ordenaco aitonen seme, eta erregeren Conscillari famatua (1643, 3).

Baina azpimarra bedi honako hau: ez zen Axularren irudimen eskasagatik hala agertu, Axularrek ongi asko baitzekien Sorbonan ikasia zela baigorriar zendua, eta zuhurra-edo ere bazela, eta erregearen predikaria, eta beste hainbat eta hainbat gauza gehiago.

Ez du ematen Axularrek oharkabea utzi zituenik uztartu gabe «kargu» ofizialak bestelako ezaugarri afektibo-baloratzaileekin, eta ezta ere Etxauzen ustezko ahalmen intelektualak eta bertute espiritualak (testuan aurrera egitean laudatuko zituenak) ospea ematen zuten kargu «politiko» haiekin.

Guztiarekin ere, Axularren erredakzio haren funtsezko arrazoia —eztabaidarako beste hipotesi bat— «Gomendiozco Carta»-ren izaera arras formalean letzake eta, orobat —eta batik bat, eta horrexegatik—, Etxauzek frantziar monarkiaren aterpean erdietsitako estatusa nabarmenarazi nahi izatean.

Alabaina, zalantzazkoa litzateke ea, liburua erregimen monarkiko katoliko erromatarra gurtzen zuten pertsonaia nagusietako baten babespean abiaraztean, noraino ez ote zituen Axularrek estatuko egitura indartsuenarekin uztartuta utzi nahi izan bere pertsona eta bere ahalegina. Eta bide batez, Historiaren aurrean.

Zeren eta zuhur eta makur pentsatzen hasiz gero, Axularrek bazekien horrek gizarte-estatusa bera ere finkotu ziezaiokeela hierarkien aurrean, eta, ondorioz, etorkizuneko ospea eta proiektzioa ere areagotu euskal jatorrikoa izandako —eta, ofizialki, «Frantziakoa eta Nafarroakoa» izaten segitu zuen— monarkiaren mendeko euskaldunen artean. «Hemengo aldia eguin hurren» bazuen ere (1643, 11). Edo horrexegatik, hain zuzen.

10. Esana dugu antzeko eskaintza eta babes-etskaerekin abiatuak zirela, Etxauz bizirik zelarrik, frantziskotar euskaldun berria eta teologo ziburutarra ere.

Sinbolikoago eta desinteresatuago irudi lezake Axularrenak, ordea, Etxauz hil ondoren burutu baitzuen berea.

Baina lehenago edo beranduago, hirurek erakutsi nahi izan zuten beren omena Etxauzengandik jasotakoengatik. Eta egia da, horrekin, gure hiru idazle larriok egokiro «ordaindu» ziotela baigorriarrari haiekin izan zuen begirunea, eskerronaz gainera, pertsonaia zuzen, ahaltsu eta ospetsu, eta euskal hizkuntzaren eta letren aldezu zuhur eta eskuzabal gisara proiektatu baitzuzten haren izana eta izena.

Ordain ederra jaso zuena, baike, botere eta aginte-sareen eraginak eta inplikazioak zirela eta, kontrarreformaren ilun beltzetatik hurbilago gera baitzitekeen gizartearen aurrean, euskal letren aterpeak hain urrikalkorki babestu izan ez baleza.

2015eko otsailean, Aramaion

Bibliografia

- Axular, 1643, *Gero*, Bordele, G. Milanges (<http://klasikoak.armiarma.eus/faksimileak/17/AxularGero.pdf>).
- Axular, 1976, *Gero (Después)*, (L. Villasante-ren argitalpena eta itzulpena), Arantzazu-Oñati.
- Burton, R., 1638, *The anatomy of melancholy*, Oxford.
- Cayet, P.-V., 1838, *Chronologie novenaire, contenant l'Histoire de la guerre sous le règne du tres-chresien Roy de France et de Navarre Henry IV, et les choses les plus memorables advenues par tout le monde, depuis le commencement de son*

- regne, l'an 1589, jusques a la paix faicte a Vervins, en 1598, entre sa majesté très chrestienne et le roy catholique des Espagnes Philippe II, Paris (Nouvelle collection des Mémoires pour servir à l'Histoire de France, depuis le XIII^e siècle jusqu'à la fin du XVIII^e delakoaren 12. liburukiaren lehen atala; <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k30887p>).
- Chaffanjon, A. eta Flavigny, B.G., 1982, *Ordres eta contre-ordres de Chevalerie*, Paris.
- D'Hozier, Sieur (biltzailea), 1634, *Les noms, surnoms, qualitez, armes, et blasons des Chevaliers et Officiers de l'Ordre du S. Esprit, creéz par Louis le Juste, XIII. du nom, Roy de France et de Navarre, à Fontainebleau, le 14. May 1633. Avec les Figures en Tailles-douces, curieusement gravées, et representant au vray les Ceremonies et Vestemens des dits Sieurs Chevaliers: et un ample discours sur ce qui s'y es passé*, Paris, Chez Melchior Tavernier (<http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k1320327>).
- Extraicts et mémoires concernant l'Ordre du Saint Esprit, 1601-1800 (BNF, Département des manuscrits: français 18672).
- Etxabe, B., 1607, *Discursos de la antigüedad de la lengua cántabra bascongada*, Mexiko.
- Etxeberri «Ziburukoak», J., 1636 [1665], *Eliçara erabiltececo liburua*, Bordele, Mongiron Milange (<http://klasikoak.armiarma.eus/faksimileak/17/EtxebZibuElizara.pdf>).
- Materra, E., 1617, *Doctrina Christiana*, Bordele, P. de la Court (<https://docs.google.com/file/d/0B-GpHxNDipHek9JN3JGYVQ3dmM/edit?pli=1>).
- Morin, J., 1623, *Les armes et blasons des Chevaliers de l'Ordre du Saint Esprit creéz par Louys XIII Roy de France et de Navarre. Par Jacques Morin es-cuier, Sieur de la Masserie*, Paris, P. Firens (<http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/btv1b90573190/f20.item>).
- Orpustan, J.B., 2012, «Bertrand d'Etchaz (1556-1641). Fragments de portraits littéraires», ikus http://tipirena.net/Tipirena_-_Site_officiel_de_Jean-Baptiste_ORPUSTAN/II_Litterature_files/articleEtxauzphoto.pdf (aurreko bertsioa: 2000, in *Autour de Bertrand d'Etchaz. Evêque de Bayonne. Actes du colloque des 17 & 18 septembre 1999*, Baiona, 209-228).
- Rambaldi, P., 2008, «Censura e indici dei libri proibiti», in *Index Librorum Prohibitorum*, Bologna, 1-20.
- Saintfoix, M., 1775, *Histoire de l'Ordre du S. Esprit. Nouvelle Edition, revue, corrigée & augmentée*, I eta II, Paris (<http://dx.doi.org/10.3931/e-rara-24567>).
- Salaberri, P., 1998, «Axularren hitzez eta Etxauzen karguez», *Euskonews&Media* 17 (98/01/15-22), (<http://www.euskonews.com/0017zkb/gaia1706eu.html>).
- , 2005, «Axular Jekyll, Axular Hyde», in P. Etxeberria eta H. Knörr (ed.): *Nerekin yaio nun. Txillardegiri omenaldia*, Bilbo, 413-430.
- Sieur de Vallés (biltz.), 1623, *Recueil de tous les chevalliers de l'Ordre du Saint-Esprit, depuis l'institution jusques en la présente année 1623, recueillis par le sieur DE VALLES, chartrain, résident à Lyon, secretaire de la Chambre de Sa Majesté Louis treiziesme, à présent regnant* (eskuizkribua: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/btv1b9063862r/f4.image>).
- , 1631, *Recueil de tous les chevaliers de l'ordre du Saint Esprit, depuis l'institution jusques en la presente année mil six cens trente un, avec les armoiries... le tout recueilly et mis en ordre par le Sr DE VALLES, de la ville de Chartres, en Beauce. Paris* (eskuizkribua: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/btv1b8470172t.r=de+vallés.langFR>).
- Villasante, L., 1972, *Axular. Mendea. Gizona. Liburua*, Arantzazu-Oñati.
- , 1979, *Axular-en Hiztegia, Euskara-Español-Français*, Arantzazu-Oñati.

ERANSKINAK

I

Bertrand Etxauzi eskainitako gomendiozko gutunak

I.1

(Materra, 1617)

Beltran de Etxauz Baionako ipizpiku,
Erregeren Konseilari eta lehenbiziko Erremosinariari,
Fray Esteve Materra San Franziskoren Ordenako Fraiderik txipiena
ontasun eta osasuna

Jauna,

Iragan den denborako jendeak hain ziren arduratsu eta axolduri bere haurren gainean, eta hain zedukaten kontu handia nork berei ongi erakustez eta aztura onen emateaz, non iduritzen baitzeien behin ongi haziz gero, on eta prestu baizen ezin ziratekeiela. Halatan Hipodamus zeritzan filosofo batek erraiten ohi zuen herri ongi ordenatu baten zimendurik printzipalena haurren ongi haztea eta kidatzea zela. Eta egiazki arrazoina zedukan, zeren haurtasuneko aztura eta usantza hain da bortitz eta boteretsu, non erraiten baitu Platonek ere nola irakatsia baitate bat bedera bere haurtasunean, hala biziko ere dela bertze gainerako denboran.

Eta nola lehenagoko filosofo hek egiazko Jainkoaren ezagutzarik etzutenak baitziren, erraiten zutenean haurrei hastetik ongi erakutsi behar zaiela, etzuten aditzen ongi erakuste hura Jainkoaren zerbitzatzeko eta arimen salbatzeko behar zela, baina aditzen zuten hura guztia munduko arauaz, jendar-tean prestuki eta ohorez bizitzeko premiazko gauza zela. Baina guk (nola girstino, egiazko fedez argituak baikara) eztugu munduko prestutasunaz eta jendarteko tratuz hanbat kontu egiten nola egiazko Jainkoaz eta haren Fedez, Legeaz eta Beldurtasunaz.

Eta halatan, erraiten dugunean haurrei haurretik erakutsi behar zaiela ongi, aditzen da erakutsi behar zaiela nola eta zer moldez behar duten Jainkoa onetsi, zerbitzatu eta, haren manamenduak konpliturik, bere salbamedua ardietsi.

Eta haur dela uste dut girstinotasuneko pontu printzipalenetarik bat, edo printzipalena. Zeren (Espiritu Sainduak dioen bezala) nor nola gobernatzeko baita gaztean, hala komunzki egiten ohi da zahartzean ere; orduan hartzen duen bidea edukitzen ohi du gero ere; hari itxekitzen zaika, gutitan handik jigitzen edo aldaratzen da.

Bada, Jauna, ikusirik zein gauza beharra eta premiazkoa den haurrei haste on baten ematea eta Doctrinaren erakustea, eta hartan zure Ipizpikuta-

sun hunetan anitz eliza-gizon trabailatzen eta nekatzen dela, iduritu zait hei heltzeko eta laguntzeko on dela hitzez erraiten dena liburuan eskiribuz edireitea, han irakurtzen dela, Nabusia eta Diszipulua ere hanbat pena eta trabaila eztezin.

Eta hartarakotzat deliberatu dut liburutxo hunen egitera.

Ordea, jendartera ilkitzekotz, zure izenaren eta itzalaren azpian behar du ilki, zeren halatan izanen da etsaietarik ongi begiratu. Eta arrazoinaren eta zuzenaren arauaz ere, ene Euskarak bere lehenbiziko agurra eta ezagutza zuri egin behar zerautzun, zeren nik hizkuntza hunetan dakidan guztia zuri zor baiterautzut, zure erranagatik, zuk esportzaturik, bihotz emanik eta, are, egoiteko lekua ere zuk zerorrek Sarako herria seinalaturik, dakidana han ikasi baitut.

Eta hala, baldin ene entseiu hunek ohorerik edo laudoriorik batere merezi badu, zuri dagotzu gehiena eta printzipalena, zeren zu izan baitzara hunen zimendua eta iturburua.

Lagun zakitza, beraz, errezibi ezazu begitarte onez, defenda ezazu, fabora ezazu, zeren esperantza dut halatan ongi etorria izanen dela, inbidiosek kalte guti eginen diotela eta, are, hek guztiak garaiturik nik esperantza dudan bezala ontasun handi bat, guztiz ere jende xehearen arten, eginen duela.

Bitartean, obligatu naizen bezala eginen diot Jainkoari otoitz dizula zeure desira onen konplimendua, eta bere Elizaren aitzinamendutan anitz urtez bizitzeko indar eta garazia.

Zure zerbitzaririk txipiena,

Fr. ESTEBE MATERRA

(*Doctrina Christiana*, Bordele: P. De La Court, 1617)

I.2

(Etxeberri Ziburukoa, 1636)

DEDIKAZIONEA

Jaun noble, Bertran[d?] de Etxauz,
Sorbonako doktor jakintsun,
Tursko artzipizpiku digne,
Erregeren predikari famatu,
& konseiler zuhurrari

Damu nuke, o Jaun Etxauz,
Neure jabe noblea
Eta Frantziako Prelat
Guztien ohorea,

Ez zuri dedikatzeaz
Neure obren goiena,
Zarenaz gero exenplu,
Bertute ederrena.

Halako ezaguturik
Zu gure erregeek,
Hautatu zaituzte bere
Konseilari nobleek.

Egiteko gaitzenetan
Zutzaz dire gidatu,
Zure adimendu onaz
Askotan progotxatu.

Zuk Frantziako eliza
Darokuzu altxatzen,
Zuk gure Eskal Herria
Ohoretan ematen.

Hala zuri zordun zaitzu
Frantzia famatua,
Zuri zordun Eskal Herri
Nihork ez garaitua.

Bereziki ni natzaitzu,
Zeren eta zureaz,
Konfirmatua izatu
Bainaiz esku emez.

Nerori anaia laugarren
Ziburuko tenpluan,
Zeinetarik bizi bainaiz
Bigarrena munduan.

Errezibi zazu arren
Ene obra apurra,
Zeina baita deus gutia
Dagotzun eredura.

Eta adi zazu Dabid
Gure Eskaraz kantatzen,
Maniureaz dioela
Bozari ihardasten.

Askok ohoratu zaitu
Zeure orientean;
Nik aldiz egiten zaitut
Orain okzidentean.

Zure bertute handiak
Gerotik geroago,
Zergatik baitire eder
Eta arraitsuago.

Eztezazula mespreza,
Otoi, borondatea,
Zutzaz dignea ez izan
Arren obra enea.

Bainan preza zazu zeren
Egina den Eskaraz,
Aita Tubalen baitarik
Dugun hizte zaharraz.

Esperantza dut eginen
Hala duzula, Jauna,
Zeren jaiatzez baitzare
Zu ere Eskalduna.

Ezen, dakizun bezala,
Eskaldunak zaharrek,
Kanten maitatzaile deitu
Zituzten Erromarrek.

Ioanes Etxeberri, Dotor Teologo Ziburutarrak

(Elizara erabiltzeko liburua, Bordele: Mongiron Milange, 1636: 1665)

I.3

(Axular, 1643)

GOMENDIOZKO KARTA

Ene jaun BERTRAND DE ETXAUZ,
Tursko Artzipizpiku, Frantziako lehenbiziko erremusinari,
Ordenako aitonen seme eta erregeren Konseilari famatuari,
ZERUKO LORIA!

Neure jaun maitea:

Joan zatzaizkit lurretik, baina ez gogotik eta ez bihotzetik.
Heldu nintzen. Ezterautazu iguriki.

Ordea cneak dira faltak, enea da hobena. Gerotik gerora ibili naiz, eta hala dabilanari gertatzen ohi zaikana egin zait niri ere.

Baina guztiarekin ere, neure obligazino handiek, ontasun errezibituek eta betiere ene alderakotzat, obrekin batean, erakutsi duzun borondate borondatetsuak ezterautate uzten, ondotik bedere zutzaz oroitzapen egin gabe, liburutto hunen kanporat atheratzeko ausartziaren hartzera.

Zeren iduritzen zait ezen oraino bizi zarela, begien aitzinean zaitudala; eta halatan, hala baitzinitut bezala, mintzatu nahi natzaitzu.

Aita prestu ohorezko bat hiltzen denean, ondotik gelditzen den seme emazurtza anitz lekutan da bere aitaren amoreagatik ongi etorria eta erraiki errezibitua. Liburutto haur da emazurtza. *Posthumus*. Aita hilez gero sortua. Baina zu bezalako aitaren semea, emazurtz izanagatik ere, ezin dateke gaizki. Zeren ondotik ere, zure prestutasuna, ohorea eta fama ona baliatuko baitzaitza.

Eta zure prestutasunaz, ohoreaz eta aitzineko eta ondoko fama on famatuaz nork zer erranen du?

Nor da Euskal Herrian, alde edo moldez, zordun eta obligatu etzaitzunik? Behartu eta enplegatu etzaituenik? Eta baliatu etzaitzanik? Zure etxea, egon eta ibili zaren leku guztietan, betiere izatu da euskaldunen etxea, pausalekua eta portua. Guztiek zuregana laster. Zuri bere arrenkurak, egitekoak, koaitak eta ondikoak konta. Eta zuk guztiak arraiki eta alegeraki errezibi, zuhurki konseila, kida, goberna eta burutan atera.

Zu izan zara eta izanen zara euskaldunen ohorea, habea, jabea, sostengua eta kantabres fina, naturala eta egiazkoa.

Zu izan zara Etxauz, mendi Pirinioetan, Alduideko hegaletan, betiere zentinela eta begiraile bezala iratzarririk dagoen jauregi eta gaztelu handi, eder, noble hartako seme. Hango Bizkondeak eta seme guztiak izatu dira betiere, egundainoz gero, erregez enplegatuak, estimatuak, fin eta leial frogatuak. Eta bai egiazko fedearen eta legearen defendatzaile eta aitzinatzaile buruzagiak ere.

Nafarroa Behereko parte hetan, bertze anitz lekutan bezala, lege katolika saildua, iduriz flakatzera, kordokatzera eta erortzera zihoanean, badaki munduak nola zure aita jauna, bere etxeaz, onez eta biziaz ere kontu guti eginik, joan zen Donapalaiaora, non baitzen orduan Nafarroako Parlameta. Eta han ausartzia handi batekin, bere bihotz giristino noblearekin, hasi zen, ezpata biluzia eskuan harturik, oihuz, Matatias bat bere denboran bezala, erraiten zuela:

— *Omnis qui habet zelum legis, statuens testamentum exeat post me* (2 Mach 2). «Ea giristinoak, giristino izenarekin izana duzenak, bertze egiteko guztiak utzirik hurbil zakizkide, jarraiki zakizkide eta egiazko legearen eta fedearen mantenatzen eta sostengatzen lagun zakizkide».

Eta hanbat egin zuen, non bere herria eta ingurunekoak ere, hetan sartzera zihoan eritasunetik begiratu baitzituen. Eta gero handik hartako herraz eta mendekuz bere jauregi ederra erre zioten.

Hunelakoak ziren zure aita Jauna eta bai bertze aitzinekoak ere.

Bada, eztuzu zuk ere zeure arrazaz ukatu, etzara zeure leinutik eta etorkitik hastandu, berezi eta ez aldaratu. Zeren zuk ere Baionako Ipizpiku zinenan eta bisitan zenenbiltzanean, ikusirik ezen elizatik kanpoan zebiltzan jende batzuek nahi zituztela, bere azken finean, gorputza elizan sartu eta ehortzi, zeure bisita hautsirik, Nafarroako hirur estatuak bildurik, joan zinen Gortera; eta han anitz trabailu iraganik, kontrakarra izanik, ekarri zenduen gero ere behar zen erremedioa, eta handik harat halako desordenuen debekatzeko ordenantza eta manamendua.

Beraz, etzara zu ere zeure aitzinekoen giristinotasunaren gibelatzaile izatu. Bada, ez eta ohorearen iraungitzaile ere.

Aitzitik badirudi ezen zuk xedea aitzinatu duzula, marra iragan duzula eta Etxauzko etxearen arropa gorriaz bestitzeko bidetan izan zarela. Zeren ezta eztakienik ezen erregek hartarakotzat hautatu eta izendatu zinituela. Eta kolpea huts egin bada ere, ezteela zure faltaz edo zu hartako ez gai izanez huts egin, zeren utzirik alde batetara zure merezimendu handiak eta elizari, erregeri eta komun guztiari anitz okasinotan egin derauztetzun zerbitzuak eta endrezuak, naturalezak berak ere anitz donu, dohain eta abantail suertez dotatu, hornitu eta konplitu baitzaitu, adimendu eder bat, memoria handi bat eta borrontate onera, ohorera eta prestutasunera erori bat, isuri bat eta eman bat eman baiteratzu.

Baina zertako sartzen naiz ni itsas hondar gabe hunetan? Ezin atera naitekeien oihanen? Zure laudorioen aiphamenean?

Berak dira bere buruz asko gora mintzo; berak dira bere baitan asko klar eta ozen.

Utz ditzadan, beraz, nik hek, hutsik eztagidan.

Eta iragaiten naizela aitzina, derradan hutsik egin gabe zer ere eskiribatuko baita euskaraz, hura guztia, euskaldunen buruzagi bezala, zuri dago-

tzula, zuri zor zaitzula eta, arrazoinez orai ere, zuri presentatu behar zaitzula. Eta guztiz ere zure zerbitzari ttipi hunen trabailu apur haur, gerotik gerora egitekoen luzatzeak zenbat kalte dakharkeien, zuk hain ongi dakizun puntu haur nori egonen zaika zuri ezpadagotzu? Nork kidatuko, nork ostatuko du, zuk ezpadezazu?

Zure gerizan doa; zure itzalaren azpian benturatzen da.

Errezibi ezazu, bada, defenda ezazu, alde zakitza, egiozu begitarte.

Ediren bedi liburutto hunetan Etxauz eta Etxauzen omena eta izena. Zeren, halatan eta harekin batean, ibiliko den leku guztietan, burua gora ekarriko du, burupe izanen du eta nehoren guti beldurrik, jendartera bere begitartea ausarki aterako du.

Bai, ordea, joan zara; lekuz aldatu zara; hemengo aldia egin duzu.

Egia da; hala da.

Eta aldezu damu dut, eta aldezu atsegin.

Damu, zeren ezpaitzaika nehoi ere handik niri bezanbat kalte etorri.

Atsegin, zeren nola ezpaikara bi mendetako eta zuk zeurea, hain ongi, hain ohorezki eta dohatsuki iragan baituzu, esperantza baitut zeruko lorian, Jainkoaren konpainian, kredit handiarekin zaudela, eta hortik helduko zaitzaizkidala, eskua emanen derautzazula; eta arranoak, airean doanean, bere umetara bezala, zuk ere enegana begia edukiko duzula. Eta gero nik ere (hemengo aldia egin hurran baitut), Jainkoaren garaziarekin eta zure arartekotasunarekin batean, zure zorte ona erdietsiko dudala, eta orduan guztiez eskerak errendatuko derauzkitzudala.

Jainkoak hala nahi duela.

Zure zerbitzari ttipiena eta obligatuena.

P. DE AXULAR

(*Gero*, Bordele: G. Milanges, 1643)

II

IRUDIAK

5.-S. Esprit Ordena: kide berriak izendatzeko jarduera (1623)




6.-S. Esprit Ordena: kide berriak izendatzeko jarduera (1633)



EXPLICATION DE LA PREMIERE FIGURE
de la ceremonie faite à Fontainebleau, à la reception des
Cheualiers du saint Esprit.

DISPOSITION de l'ordre tenu au marcher, tant de M^{rs} les Cheualiers, Commandeurs, que des Nouices, lors qu'ils sortirent du departement de la Reyne Mere, où ils estoient tous assemblez.

- A. La porte par où ils sortirent, en cheminant le long de la terrasse, marquée B. & entroient à la porte, marquée C. & de là au lieu où ils furent faits Cheualiers.
- D. Les Trompettes, qui marchoient les premiers.
- E. Les Tambours.
- F. Les Fifres & Hauts-bois.
- G. Quatre Hérauts d'Armes, marchant deux à deux.
- H. Le Roy d'Armes de France, marchant seul.
- I. Le S^r de Bourg-neuf, Huissier de l'Ordre, marchant seul.
- K. Le S^r du Pont, Héraut de l'Ordre, marchant seul.
- L. Trois Officiers de l'Ordre ensemble, à sçavoir M^{rs} d'Acheres, Preuoist & Maistre des Ceremonies, Bouthillier, grand Thresorier, & Duret-Chevy, Secretaire.
- M. M. de Bullion, Garde des Seaux de l'Ordre, marchant seul.
- N. M^{rs} les Cheualiers Nouices, marchant deux à deux, chacun en son rang.
- O. M^{rs} les Commandeurs, marchant aussi deux à deux, chacun à son rang.
- P. Le Roy, marchant seul; la queue de son manteau, portée par M. le Marquis de Gesvres, & derriere sa Majesté M. le Cardinal, Duc de Richelieu, seul; vn Aumosnier portant sa queue.



Explication de la seconde figure.

DISPOSITION de la Chappelle préparée en la Salle de la Belle Cheminée, pour la reception de M^{rs} les Cheualiers.

- A. Lieu où le Roy estoit durant les Vespres, ayant à costé de luy M. le Comte, & derriere M. le Marquis de Gesvres, son Confesseur à droict, & cinq de ses Aumosniers à gauche.
- B. Les bancs à droict & à gauche, où estoient assis M^{rs} les Commandeurs.
- C. Autre banc, où estoient assis les Nouices qui deuoient estre faits Cheualiers.
- D. M. de Bullion, Garde des Seaux de l'Ordre.
- E. Trois Officiers de l'Ordre, à sçauoir M^{rs} d'Acheres, Bouthillier, & Duret, celuy-cy estant à la gauche dudit S^r d'Acheres, & celuy-là à sa droite.
- F. Le S^r du Pont, Heraut de l'Ordre.

- G. Le S^r de Bourg-neuf, Huissier de l'Ordre.
 - H. M. le Cardinal, Duc de Richelieu.
 - I. M. le Cardinal de la Vallette.
 - K. Derriere MM. les Cardinaux il y auoit deux bancs, en l'un desquels estoient M^{rs} les Archeuesques de Narbonne, de Paris, & de Bourdeaux; & en l'autre derriere eux estoient les Euesques d'Aire, & d'Orleans.
- Et derriere ceux-cy estoient les Aumosniers de M^{rs} les Prelats.
- K. M. le Cardinal de Lion, Grand Aumosnier, qui officia.
 - L. L'Abbé d'Espierres, Diacre.
 - M. L'Abbé de Pontigny, Sous-Diacre.
 - N. Le lieu d'où on apportoit les manteaux des nouveaux Cheualiers.
 - O. La Musique de la Chambre.
 - P. Lieu où estoit le Roy, lors qu'il donnoit l'Ordre aux Cheualiers.
 - Q. M. de Bullion, tenant le liure, sur lequel il faisoit faire le serment à chacun des Cheualiers Nouices, auparauant que de recevoir le Collier des mains de sa Majesté.
 - R. M. Bouthillier, qui presentoit les Colliers à sa Majesté à mesure qu'elle les donnoit à chaque Cheualier.
 - S. Le Heraut de l'Ordre.
 - T. L'Huissier de l'Ordre.
 - V. M. Duret-Chevry, Secretaire de l'Ordre.
 - X. M. le Marquis de Gesvres.
 - Y. La Reyne, accompagnée de Mes-Dames la Comtesse de Soissons, Duchesses de Longueville, de Monbazon, de Rohan, & autres Dames.
 - Z. Les filles de la Reyne.
- A l'opposite de l'eschaffaut de la Reyne il y en auoit vn autre où estoient M^{rs} les Ambassadeurs, M. Seguiet, Garde des Seaux de France, M^{rs} les Conseillers & Secretaires d'Etat, M^{rs} les Maistres des Requestes, M^{rs} des Finances, Madame la Garde des Seaux, & les femmes de M^{rs} les Officiers de l'Ordre.



Explication de la troisieme figure.

L'ORDRE ou disposition du Festin qui fut fait la Salle du Bal par le Roy à M^{rs} les Cheualiers apres leur creation.

A. La Table de sa Majesté, où il estoit seul, & seruy par les cent Suiffes de sa Garde.

Aux deux costez de la Salle estoient deux grandes Tables de la longueur d'icelle, où estoient assis M^{rs} les Cheualiers tous d'un costé, en l'ordre qu'on les voit representez dans la figure: Au haut bout de celle du costé droit de sa Majesté estoit assis M. le Cardinal, Duc de Richelieu, & apres luy les autres Ecclesiastiques, chacun en leur rang, tous seruis par lesdits cent Suiffes, ausquels toutes les viandes qu'on desseruit furent données, selon la coustume pratiquée en pareille ceremonie.